



Eta hau, zergatik ez euskaraz?

Kalean gora eta behera ibiltzen gara egunero, erosketak egiten, paseoan edo nonbaitera heldu beharrean. Bidean agurtzen ditugu eza-gun zaizkigun aurpegiak eta alboetako irudi eta azalpenetara bideratzen dugu begirada behin edo behin. Horrelakoetan, irakurri eta dena ulertzen dugu, baina ez dugu dena berdin ulertzen. Gazteleraz hitz egiten digute kaletako hormek eta dendetako erakusleihoek. Batzuek ingelesa ere ikasi dute honezkero, baina euskararen loraldirik ez da inon ageri.

Gauza asko galdetuko genizkioke euskara bere errotulu, kartel edo azalpenetan haztu/ukatu/desagerrarazi duenari, baina galdera bakarra egiten diogu: eta hau, zergatik ez euskaraz?

Uda honetan ere, hamaika abentura

Martxan dira 2015eko udalekuak

Duela aste batzuk eman genien hasiera gogotsu espero genituen udalekuei. Horetan, 700 haur eta gazte baino gehiagok eta ia 100 hezitzailek esperientzia ahaztezinak bizi dituzte. Batzuk, penaz daude, jada etxean; beste batzuk, txanda erdialdean. Abenturak jarrai dezala!



OZAETA



IBILTARIA (DEBA-ORIO)



UDAN OLGETAN



IKASTOLAKO EGONALDIAK

Plateruenako espazioak erabilgarri izango dira edonorentzat

Plateruenaren atek zabal-zabalik daude. Lehen baino irekiago; areago. Izan ere, aurrerantzean norbanakoek zein elkarteek antzokiko espazioak erabiltzeko aukera izango dute, doan.

Lau gune daude erabilgarri: **ganbara**, **fabrika**, **kamerinoa** eta **areto nagusia**. Beharrianen arabera, bata edo bestea aukera dezakezu, nahieran.

Zilarginon ganbara, adibidez, ideiak

sortzeko lekua da; proiektu bat abiaraztekoa. Edo, besterik ez bada, baztartzeko eta hausnartzeko gunea.

Fabrika –anfiteatroa– proiektu txikiak gauzatzeko (prentsurrekoak, mahai-inguruak...) edota entseguak egiteko espazioa da.

Kamerinoak hainbat aukera eskaintzen ditu. Besteak beste, komuna, duxta eta makillaje-mahaia ditu.

Azkenik, **areto nagusia** ekitaldietarako plaza da. Bertan, formatu handi zein txikiko ekitaldiak egin daitezke; plaza osorik edo zatika erabiltza.

Gune bat erabili nahi baduzu, idatzi erika@plateruena.net edo kultura@plateruena.net helbideetara, eta adierazi zer behar duzun.

Erdu Plateruena, ameslarion plazara!



ZILARGINON GANBARA



ZILARGINON FABRIKA



KAMERINOA



ARETO NAGUSIA

Tripulante berriak zuzendaritzan

Batzar nagusiaren ostean, zuzendaritza da elkartean dugun organo gorena. Egitasmoak landu eta erabakiak hartu, langileon eta bazkideon kointak entzun eta erantzun..., horiek izaten dira eginkizunetako batzuk. Ez da lan makala, are gehiago musu-truk egiten deanean.

Elkarteak dauzkan erronka eta beharrianei albait ondoen aurre egiteko prest ager-

tu zaizkigu Ziortza eta Ixone. Lehendik dauden tripulanteekin batera, euskararen be-laontzi txiki sendoak duintasunez nabiga dezan lan egitera batu dira. Olatuek gogor jotzen dutenean, ontziari artez eusteko lagun gura zaituztegu, ur handitan gabiltzanean iparragal ez dezagun ere lagun gura zaituztegu, baita barealdietan eta porturatzeetan ere... Ondo etorriak izan zaitezte.





Aisialdiaz Durango aldatu nahian!

Berbaroko hezitzaile-taldeak kolokan jartzen du egungo Durangoko aisialdi-eskaintza. Argi dute ez direla bizi dugun ereduaren aldekoak, baita zer gura duten ere. Gazteei galdetuz, denon artean, proiektu hezigarri eta herritar bat garatu nahi dute, eta aukera hau aprobeztatu dute zuei denoi azaltzeko:

Zein da proiektu honen asmoa?

Durangoko ume eta gazteekin aisialdi hezigarri eta herritarra sortu eta bizitzea da gure asmoa. Gero eta jendarte anitzagoan bizi gara, eta, askotan, hezkuntza formala ez da momentuko beharrianetara moldatzeko gai. Hezkuntza ez-formalak mundua nahi dugun eran pentsatzeko aukera eskaintzen digu.

Durango euskaldunago, parekideago, anitzago, parte-hartzaileago bateranzko bidea marraztu, margotu eta ibili nahi dugu, urte osoan

jarraitutasunez, eta ume eta gazteen nahi eta interesen arabera.

Zerk batu zintuzten?

Udaldian udalekuetan landutakoak urtean zehar jarraitu penik ez izateak kezkatzen gintuen. Urtean zehar "zaintza zerbitzu" erako aisialdiaz haratago, ez dago eskaintza euskaldun jarraiturik Durangon. Gainera, egungo eskaintza gurasoen beharrianetara egokitutakoa da, eta guk berriz, ume eta gazteekin batera programatu nahi ditugu egitekoak, haur eta gazteei erabakitzeke aukera eman.

Antzeko ilusioak ditugun hezitzaileak geundela ikusita, eta Durangon baliabideak eta haur zein gazte mordoa dagoela ikusita, proiektuari forma ematea erabaki genuen, Berbaroren laguntzarekin. Ordutik hona, taldea handitzen eta aberasten joan da, eta gogoz eta ilusioz gabilta lanean.

Zeintzuk dira hemendik aurrera emango dituzuen pausoak? Baduzue ekimenen bat eskuen artean?

Orain artekoak hezitzaile edo bidelagun taldea osatzea, egungo aisialdiaren inguru-

"Aisialdi hezitzaile eta herritarra sortu eta bizitzea da gure asmoa"

ko gogoeta egitea, eta gure buruak formatzea izan dira, dela taldean, dela norbanako gisa. Hala ere, gogoeta hau guztia ez dugu guk bakarrik egin nahi. Aurrez aipatu bezala, ume eta gazteekin egin

gura dugu lanketa; zer gura ez duten eta zer gura duten galdetu, eta nahi horrek elkarrekin eraiki. Badakigu erronka handia dela, baina gogotsu gaude.

Proiektu honi 10 eta 14 urte bitarteko gaztetxoekin emango diogu hasiera. Denbora librean antolatzeke gabezia handienak dituztenak direla uste dugulako (edo ez, beraiei galdetu beharko diegu). Irailaren 25ean izango dugu gazteekin lehenengo zita, eta helburua gazteen nahien eta interesen inguruan gogoeta egitea izango da, eta hortik abiatuta, aisialdirako jarduerak programatzea eta gauzatzea, pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak josiz.

Baduzue irakurleei besterik esateko?

Ume, gazte zein heldu, zuk ere aisialdia eta hezkuntza ez-formalarekin amestu eta hori irauli nahi baduzu, hemen gaituzu!

Atzerrian euskaraz?

Umeen aurpegi izozkiz zikinduak ikus-tea, iluntzean etxeratzeke ordua atze-ratzea, leihoa zabalik lo egitea... Uda usaina arnastu daiteke Durangon, ezta? Sasoi honetan, askok eta askok ondo merezitako opor egunak hartuko dituzue. Eta, Berbaron mesedetxo bat eskatu gura dizuegu Euskal Herritik kanpo ibiliko zaretenoi: atzerrian euskara edo euskal kutsua duen zerbait aurkituz gero, gurekin konpartitu!

Etxetik hainbat kilometrora egon

arren, nork ez ditu euskaldunak aurkitu txokorik ezkutuenean ere? Hizkuntza ezezagun batean euskal berba bat identifikatu duzuela iruditu zaizue? Belarriak ez dizue hutsik egin. Adibidez, noski hitzak polonieraz sudurtxoak esan gura du, eta errusieraz, aldiz, galtzerdiak. Euskarazko leku-izenak mundu osoan daude barreiatuta, baita euskararen antza dutenak ere. Horrelako tokiren bat bisitatzen baduzue, atera argazkiak kartelei eta bidali! Turismoa ere egin

daiteke erdarara jo barik: bazenekiten Lisboako autobus turistikoek euskarazko audiogida eskaintzen dutela?

Bazkideok, munduan barrena euskara aditzen baduzue, bidali mezu bat edo whatsapp bat 676 468 121 zenbakira eta kontatu labur-labur zuen pasadizoak. Ez ahaztu argazkia eranstea -zuek agertzen bazarete, hobe! -. Ondoren, argazkiak Facebookera igo eta onenak hurrengo Berbarotarran argitaratuko ditugu. **Ondo pasatu oporretan!**



Arantza

Benetan *open* izan behar du *zabalik* izan behar-reen? Benetan kartelak erdaraz egoteak iragar-ritako ekintzari balio handiagoa ematen dio? Benetan hezkuntzako profesionalak ez dute ulertuko euskaraz idatzitako kartela? **Tamalez, hala da, sinestezina badirudi ere!**

2016 POSTGRADO EN psicomotricidad
¡¡¡Últimas plazas!!!

Destinatarios

- Profesionales con:
- Diplomatura o grado de la rama educativa
- Licenciatura de la rama educativa
- Ciclo Superior de la rama educativa

Periodo formativo

Programa formativo: 30 ECTS = 750 horas
en un año académico
Curso escolar de septiembre a julio aproximadamente
Horario: los días presenciales serán los miércoles y viernes de 17:00 a 21:00

¡Ven a Surfear con nuestro monitor SURFER Jaty Berasaluce

Compartido de menores
(16 años)

Compartido de adultos

OPORTUNIDAD ÚNICA Y ÚNICO NUEVO

WE'RE OPEN

Arrosa

Eta zuei... **Eskerrik asko!** Marka da gero eskerrak eman beharra sentitzea, benetan ere!

PITXERRA 34.00 €
PINTZAK 5.00 €
KATILUA 8.00 €
PLATERRA 10.00 €
TEONTZI 30.00 €

EZ BOTA ZABORRIK !!!
MESEDEZ

ESKERRIK ASKO
INGURUKO (ESKERRIK ASKO)
HERTZAIK ETA LANGILEAK

DESKONTU
ICE GUNE A

